

# Abaitua (-a) etxebizitza

Aldacrak:  
Ahozkoa: Abáitu



43° 10' 56"

2° 34' 30"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

“... la casa principal rústica de Abaitua, sus accesorias y pertenecidos radicantes en jurisdicción de la anteiglesia de Berriz... sita en la barriada de San Lorenzo... es de una vivienda y consta de piso llano, alto y desban o camarote, ocupa una planta solar de trescientos veinte y siete metros cuadrados incluso lo que ocupan su horno y dos tejabanos contiguos...”  
DJE 4/86 or. (1878)

Abaitua baserria izan zen hasierako etxea eta geroago, beste hiru eraiki ziren: *Abaituetxebarria*, *Abaitubidekurutzeta* eta *Abaituola*. Baserri honen gaineko lehen aipuak XVIII. mende hasieran aurkitzen dugu *Abaitua* (1704) Bizkaiko lehen su-errolan. Hortik aurrera, forma bera aurkitzen dugu dokumentu guztietan, ia aldaketarik gabe; *Abaitua* (1797, BAHF, A67/8), *Abáitua* (1859, BUA, Nmcr) eta *Abaitua* (1967) mende amaierako errolan. *San Lorentzo* aldean dugun baserria *Abáitu* moduan ezagutzen da berriztarren artean.

Baserri-etxe handia dugu, pisu bi eta ganbara dituen. Isurki biko teilatuaren azpian oso etxe ordenatua eta simetrikoa ikusten da: atarte gisa bi arku eder dauzka erdian, egitura antolatzen dutenak. Gainean, balkoi txiki bana dauka, harritzko zoruarekin eta burdinazko karelekin, eta

ganbaran, berriz, alderik alde doan egurrezko balkoia, bertara beste bi leiho luze zabaltzen direlarik, behekoekin lerrotatuta. Aldamenetan ere, leihoak ditu, baita ganbara aldean ere, hori bai, txikiagoak.

Etxea harlangaitzaz jaso zuten, eta ziurrenik jatorrian estalita egongo zen, oinarrietako alde batzuk eta bao guztiak izan ezik. Azken horietan harlandu ederra erabili zen arkuetan, leihoetan zein kantaletan. Oinarrian XVI. mendeko silarrria tipikoa dauka, baita ezkeraldeko leiho hegian dagoen molduran ere. Gainekoa, aldiz, XIX. mendean egindako berreraikitzearen ondorio da. Lehenengo pisuko balkoien artean inskripzio bat dugu: “*SE REEDIFICO POR JUAN / VICENTE MARQUINA Y SU / HIJO JUAN LEONAÑO DE / 1878*”. Azken berritze-lanak 1980ko hamarkadakoak dira.

## toponimia

Nahiz eta aurkitu dugun aipurik zaharrena 1704koa izan, *Abaitua*, badakigu baserria zaharragoa dela eta gutxienez XVI. mendean bazegoela deitura eman baitigu. Honek, hala ere, ez du esan nahi egungo eraikuntza XVI. mendekoa dela, baserriak berreraiki baitira etengabe, erretzen zirenean edo besterik gabe zaharkituta zeudenean. Esanahia iluna da, bigarren osagaiak (-tu) aditz bat dela adierazten digu, baina ez dakigu besterik.